

Noaia!!!



Ziortzako kanpaldietan
izena emateko garaia da



5 biltzaile arituko dira lanean

Atez ateko aurpegiak

Zer erreko litzateke erraustegian? urteko 1.650tn erreko lirateke!

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASEERRA HERRIA
BIZIRIK

industri-merkaritza eta instituzio hondakinak	
azoketan jasotakoa	%2,26
hondartzetzako hondakinak	%0,99
best. hond. zabortegitan utzitakoak	%71,33
kontrolgabeko lekuen urteko garbiketa	%0,03
egurra	%7,08
kartoia	%14,13
taberna eta jatetxeen beira	%0,67
plastikoa	%0,03
udal lorategietako hondakinak	%3,48

**Guzti-guztia
birziklatu
edo
berrerabiltzeko
gaia!**

→ **energia eta
konpost ongarria
sortzeko egokia da!**

* Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.

Osasun-tekniko batzordea



PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



**UNIBERTSITATEA
BIZITZECO
PREST!**

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

APIRILAK 25 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata AULA MAGNA

OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APIRILAK 2 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APIRILAK 23 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

ESKORATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Albistea iruditan!!

Zabor ontzirik gabeko paisaia

Beirakoak utzi egin dituzte, baina gainontzeko zabor ontziak jada kendu egin dira. Honen ondorioz, beste itxura bat hartu du herriak. Hainbat tokitan, arraroa ere egiten da. Atez ateko sistemak, bistan da, kaleetako paisaiaren aldaketa ekarri du. Ea, orain, zaborra kudeatzeko eredu iraunkor batean bilakatzeko den; hemen zein gainontzeko herrietan ere. Hori bai izango zela ozen nabarmentzeko aldaketa...



Martxoak 13 ostirala



Martxoak 15 igandea

AURREKO ASTEAN KENDU ZIREN ZABOR ONTZIAK. BEIRAKOAK HALA ERE, ZEUDEN TOKIAN JARRITZEN DUTE. PAISAIAN ALDAKETA NABARIA DA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

HISTORIA IKASTAROA ANTOLATU DA **5. OR.**

ATEZ ATEKOARI ONGI ETORRI **10. OR.**

AUKERA BERDINTASUNA, AZTERGAI **13. OR.**

ZIORTZAKO KANPALDIAK MARTXAN **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enca, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K./nagusia 14. © 943 362 725



ARITZ GORRITI

M-16

Bazetorrela, bazetorrela jakinarazi ziguten eta bai, pres-taketa lan prozesu luze baten ostean, ailegatu da Usurbilen eta askoz eremu zabalago batean, Euskal Herrian hain zuzen ere, aurrekaririk ez duen eguna. Abian jarri berri den hondakinaren atez ateko bilketa sistemak bi aldi desberdinen arteko muga suposatuko du. Hondakinak nahastuta jasotzetik gaika biltzera igaro gara; gaur organikoa, bihar papera eta kartoia, etzi erreusa eta horrela, asteko zazpi egunak osatu arte. Birziklatze tasa kalitate eta kopuru aldetik igotzeko bidean gaude. Herritarrok sortzen dugun zaborraren erantzukizuna hartua dago. Egungo zabortegiez ahazten lagunduko digu atez atekoak. Orain arte, zaborra sortu bai, baina ordu gutxiren buruan axola ez zuen leku batean gordetzen zuten. Eta ohi denez, gure zaborraren usain txarra beste batzuek pairatu behar izan dute. Beraundarrak ere kexu ziren aspalditik. Normala, ezta?

Beraz, ezin esan, martxoaren 16a beste edozein astelehen izan denik. Bide berri bat zabalduko du, ziur, Usurbilen martxan jarri den esperientzia berriak. Bide hori jorratuko dutenak, kudeaketa sistema modu berri

honen ardatza, herritarrek izango dira. Ez da erronka makala, baina gutako bakoitzak etxean sortzen dituen hondakinaren ardura hartzea, benetan, harro egoteko moduko jarrera da.

Eta martxoaren 16rekin batera, egun horren aurretik burutu den parte hartze prozesua ere ezin ahaztu; aurrekaririk ez izateaz gain, herriari ahotsa eman eta herritarrek parte hartzaile zuzen bilakarako dituelako. Galdeketa egitea ere proposatu du herritar talde batek eta Udalak jakinarazi duenez, egin egingo du. Interesgarria litzateke galdeketa saio horretan, atez atekoa nortzuk nahi duten galdetzea. Baina baita erraustegia nork nahi duen ere eta atez atekoa baino proiektu eraginkorragorik duenak, proposatzeko aukera izan beharko luke. Ziur, aztertze moduko emaitza interesgarriak aterako liratekeela. Itxarote zerrenda ez da laburra, udalerrri asko gurean zer gertatuko begira daude. Hemendik urte batzuetara zer pentsatuko ote dugu M-16az, atez atekoaz? Seguru, beste hainbat konturekin gertatu bezala, umore onez gogoratu-ko ditugu onek.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

Harro nago

Harro nago. Askotan ez bezala, harro nago nire herriaz. Usurbil.

Harro nago, gaur egun dugun ingurumen arazo latzenetak bati, usurbildarrok geronek sortzen dugun zabor eta hondakinei, alegia, heldu zaiolako. Diogulako. Gure etorkizun bakarra, gure ondorengo bakarra ingurumena dela ikasten ari gara. Gu gara ingurumena. Bizi gaituen paisaiaren parte garrantzitsua geu gara. Guk sortua da den dena: pinadiak, belazeak, erriberak... Dagoenerako ez dena ere geuk kendua da: hariztiak, padurak, bisiguak, haginagak... Geure esku dugu etorkizuna. Eta Usurbilgo herria jabetu da. Jabetu da arazoei berta-bertatik, kirtenetik heldu behar zaiela.

Harro nago, Herriko Etxean herrigintzan ari diren herritar ausartak aurrera begira jarri direlako. Eta ausardia piztu da, baita lehertu ere... Eta usurbildar guztiok zirripiztindu gaitu. Bizitzearen hondakinak geure ditugu. Hondakinok gobernatzeko gaur egun ezagutzen den aukera aurreratua jarri du etxe guztietako mahai gainean, Herriko Etxeak. Honetarako burutu den informazio kanpainak ez du alferrik publizitate sari bat jaso...

Aurreratua, Urbil merkataritza gunea baimendu edo ez herritarrok erabaki genuen erreferendum hartatik golde bat haruntzago, guk sekula santan ezagutu gabeko erabakitze ahalmena eman zaigulako herritarroi. Eta gizalege erantzun da (...).

Aurreratua, ekintza sinple eta erraz honekin gure hondakinaren %80tik gora berrerrabiltze bidean jarriko dugulako; hau da, mundu mailan hondakinak gobernatzeko puntako herria izango gara.

(...) Aurreratua, aurrera begira jarriz gero, gure geroa ikusten dut, haurrak. Etorkizunaren otsoari belarrietatik heldu eta atez-ateko bilketaekin osasuna sortu eta zaintzen dugu, haurrentzako, etorkizuneko usurbildarrentzako. Osasuna etxean, kalean, paisaian, bizimoduan...

Nik auzokoarentzat eta hurkoak denontzat, aspaldiko auzolanik handiena egin da Usurbilen. Eta txikito, hasi besterik ez dugu egin. Gure herriko arazoak zai dauzkagu: baserriko produktuekin bidezko prezioak, nekazaritza ekologikoaren sustapena, errioko erriberak babestea eta abar luze bat. Eta erraustegia, Gipuzkoa eta Nafarroa erreko

dituen erraustegia. Erraustegitik 21 km-rako tartean biziko garenok, patrikak berotu nahi dituztenen erokeria sufrutuko dugu: minbizien gorakada izango da eragin nabarmenena, osasun elkarte eta unibertsitate sonatuen ikerketen arabera. Tarte honetan gaude Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Orío, Hernani, Astigarraga, Oiartzun, Donostia, Pasaia, Errenteria, Lezo, Hondarribia, Irun, Aduna, Zizurkil, Villabona, Berrobi, Belauntza, Elduain, Ibarra, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Larraul, Alkiza, Aia, Zarautz, Getaria, Arano, Goizueta, Leitza, Berastegi, Gaztelu, Orea, Lizartza, Altzo, Orendain, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Beizama, Azpeitia, Zestoa, Zumaia... 494.191 bizilagun, ia milioi erdi bat. Eta ez hauek soilik, non zaudete Euskal Herriko gainontzeko 682 herriak? Ari al zarete aurrera begira? Usurbildarrok laguntzeko prest gaukazue.

Egunerokoari apal heldu, baino etorkizunari harro puntu batekin ekin behar zaiolako. Harro nago.

Jakoba Errekondo, paisajista

Independentziaren historia ezagutzeko ikastaroa antolatu du Nafartarrak taldeak

Martxoaren 30ean hasiko da "Independentziaren historia: estatalitatea, subiranotasuna, euskaldunak eta Nafarroa" izeneko ikastaroa. Usurbilgo Udalak, Nabarraldeak eta Nafartarrak Kultur Taldeak antolatu duten ekimen honi esker, hainbat aditu hurbilduko dira Sutegira. Izen-ematea irekita dago.

Historia ikastaro hau hiru hilabetez luzatuko da, martxotik ekainera bitartean, eta 10 hitzalditan gauzatuko da. Hitzaldi bakoitzak gai nagusi bat landuko du; historiaurrea, lurraldetasuna, karlistadak eta, Nafarroaren independentziaren galera, besteak beste.

Hitzaldi hauei esker, historian adituak diren hainbat hizlari hurbilduko dira: Joseba Asiron, Mikel Sorauren, Angel Rekalde, Aitzol Altuna, Floren Aoiz, Jean Luis Davan, Txente Rekondo eta Luis M^o Martinez Garate.

Hitzaldiak, astelehenetan

Ikastaroko hitzaldi denak astelehenean izango dira, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Sutegiko auditorioan.

Prezioa: usurbildarrek 25 euro; gainerakoek, 30 euro.

Hitzaldi solteetara joateko aukera ere badago. Kasu horretan, egunean bertan 5 euro ordaindu besterik ez da egin behar.

Izen-ematea: martxoaren 15etik



FLOREN AOIZ IZANGO DA IKASTAROAN ARITUKO DEN HIZLARIETAKO BAT.

30era, dirua kontu-zenbaki honetan sartuta: 3035 0140 30 1400900017.

Ordainagiria ikastaroaren lehen egunean aurkeztu behar da.

Informazio gehiago 943 371 999 telefono zenbakira deituz.

Zuberoako maskarada ikustera joateko irteera antolatu du Txerrikik

Martxoaren 29koa maskarada Meguna izango da Idauzen (Zuberoan). Aitzakia horrekin, Txerriki Antzerki Taldeak egun osoko irteera antolatu du.

Martxoaren 29an igandea, goizeko 8:30etan abiatuko dira Zendoiaiko autobus geltokitik. Eta bueltan, beranduenez, 21:00etarako Usurbilen izatea espero dute.

Bidaiaren prezioa 6 eurokoa izango da. Hala ere, izena aldeztatik eman behar da Txerriboga tabernan.



MARTXOAREN 29AN, GOIZEKO 8:30EAN ABIATUKO DIRA.

Informazio gehiago nahi duenak, eskura dauka Txerriki taldearen e-posta: txerriki@gmail.com

Sukaldaritza ikastaroan izena emateko aukera zabalik dago oraindik

Einean Guraso Eskolak antolatu du sukaldaritza ikastaroa. Xabi Tello izango da irakaslea eta klaseak Agerialde ikastolan eskainiko ditu. Ez da aldeztatik ezagutzarik eskatzen, hastapen ikastaroa baita Xabi Tellok eskainiko duena.

Klaseak astean behin dira, asteartean, arratsaldeko 19:30etik gaueko 21:30era. Aste honetan hasi da ikastaroa eta apirilaren 14an amaituko da, baina oraindik badira hainbat toki libre. Izena emateko, deitu telefono zenbaki honetara: 635 732 099.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Xabier Mikel Errekondo alkatea, atez atekoa hasi berritan

“Herritarrei ez kezkatzeko adierazi nahi diegu”

Lerroot irakurtzerako, hasia egongo da hondakinak atez atez biltzeko sistema berria. Une egokia iruditu zaigu alkatearekin atez atekoa sustraitzeak orain arte eman duena erreparatu eta datorrena aztertzeke.

NOAUA! Hasteko gogotsu izango zineten?

Xabier Mikel Errekondo. Urtebetetik gora egindako lan guztia, inbutu moduan martxoaren 16an lehertu eta martxan jarriko dugu, herritargoa parte hartzaile izan duen proiektua. Konponbidea denok nondik datorren benetan egikaritzen has-teko unea, martxoaren 16a da. Horrek nolabait askatasun bat adierazten du, bagoaz jada. Ilusio handia pizten digu, jada benetan Usurbilgo emaitzak erakutsi eta Usurbilgo benetako ekarpen hori azaltzeko gogoia.

Poz handia ematen du, kalean herritarrek, eta udal egituraren arazoa ez dela kolore batekoa edo bestekoa ikusteak, herriarena, eta herri gehiagorena, Gipuzkoa osoarena baizik. Egunen batean konturatuko gara zein gauza handia egin duen Usurbilek.

N. Herritarren artean, zer giro sumatzen duzue?

X. M. E. Harrigarria da jendeak nola barneratua duen, martxoko hilabete hau berezia izan behar duela. Oso animatuta dago. Benetan sinisten du zabor itsusi eta usain txarreko hori, berrerabiltzen saiatu behar dugula, modurik jasangarrienean. Beste aurre iritzirik ez duenak, pentsaera irekiarekin eta emandako informazioarekin proiektua ulertzen saiatu denak zer egin nahi den argi du.

N. Lehen egun hauek nolakoak izango direla aurreikusten duzu?



URTEBETEKO LANA EMAN DU ATEZ ATEKO SISTEMA PRESTATZEAK.

X. M. E. Kirol edo musika talde batekin aldera liteke. Hilabeteak eta hilabeteak entseatzeko, entrenatzeko ibilitako taldearentzat martxoaren 16an da eguna, lehen eguna. Irrika horretan gaude, urduritasun puntu horrekin, ia ondo ateratzen den. Guztia koordinatu behar da; biltzaileek kamioiarekin ibilbide bat osatu behar dute, ordutegia... Irrika hori badago, urduritasun puntu horrekin.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Egunen batean konturatuko gara zein gauza handia egin duen Usurbilek”

N. Txikikeriak gerta litezke?

X. M. E. Malgutasuna izango da eta herritarrei ez kezkatzeko adierazten diegu. Denok jakitun gara, ohitura aldaketa bat ekarriko duela martxoaren 16ak, baina jendeak borondate pixka batekin egingo duela seguru gaude.

N. Zalantzak argitzeko aurrerantzean ere zabalik jarraituko dute udal komunikabideek?

X. M. E. Andatza hiruhilabetekariak, web orriak, telefono zenbakiak, informazio bulegoak. Beti egongo da nora jo. Usurbilek une honetan jendeari erantzun azkar bat emateko moduko egitura du.

N. Lehen emaitzak noizko espero litezke?

X. M. E. Emaitzak guk uste dugu nahiko bizkor jaso ahal izango ditugula. Ezin da eperik aipatu, baina aste gutxitan uste dugu bildutako pisua edota kalitatearen nondik norakoan berri ematen hasi ahal izango garela.

N. Lehen herria Usurbil izango da, baina gehiago ere zain direla dio San Markos mankomunitateko lehendakariak, ezta?

X. M. E. Euskal Herrian aitzindariak izango gara. Bere alde on eta txarra badu, gauza asko lehen aldiz erabaki behar izan baititugu. Herri txikia izanagatik, erronka handia da.

“Jendeari informatzen bazaio, jendeak erantzuten du”

Atez atekoari lotuta, Udalak herritarrekin guztira hemeziretzi bilkura burutu ditu. Parte hartze prozesuan erakutsitako jarreragatik Udalak herritarrek zoriondu nahi ditu.

Herritargoarengana ailegatu den benetako parte hartze prozesu eredu-garri gisa definitzen du Xabier Mikel Errekondok azken hilabeteotan Udalak egin duen ahalegina, herriari informazioa eman eta erabakitze guneetan parte hartzeko aukera eman zaio eta. “Oso gustura gaude izan duen erantzunarekin, harro egon behar dugu”, adierazi du alkateak. 1.600 herritarren parte hartzea izan duen prozesuak urtarrilean Argia saria jaso zuen, alkatearen esanetan, “hain zuzen, herritarrei luzatutako komunikazio kanpainarekin ahalegin bat egin dugulako”.

Atez atekoak abian jarri duen parte hartze prozesua beste gaietara hedatze-



ASTELEHENEAN HASI ZIREN BILTZAILEAK KUBOAK JASOTZEN.

ko asmoa erakutsi du Udalak. Udal gobernu taldetik adierazten denez, “jendeari informatzen bazaio, jendeak erantzuten du”.

Herri galdeketa

Atez atekoaren aurka sortutako herri plataformak eskatu izan duen galdeketa egingo da. Prozedura martxan da jada. “Idazkaritzak lan hori hartua du, eta prozedura nolakoa izan behar duen zehazten ari da”, adierazi du Errekondok.

Bildutako organikoa, oraingoz, Azpeitiko konpostatze-plantara

Aste hasieratik jada martxan da Atez ateko bilketa sistema. Hondakin zatien artean, oraingoz biltzen den organikoa Azpeitira eramango da. “Hurbileneko egiturara bideratu behar dela uste dugu. Kasu honetan, Foru Aldundiaren eskuetan dagoen Azpeitiko konpostatze plantara”, adierazi du Xabier Mikel Errekondok. Aldundiarekin burutzen ari diren negoziazioetan, aipatu erakundetik Udalarari adierazi zaionez, ez da oztoporik izango.

Edozein kasutan, bere esanetan, behin behinean hartutako erabakia da, konpostatze planta gehiago

beharko dira eta. Europako legediak bide horretatik aurrera jarraitzea behar-tzen duela gogorarazten du alkateak, “materia organikoa bereizi eta jasotzera”. Egoera zein den ulertuta, ahaleginak egitera deitzen du.

Garbitxikia, aurki prest

Zubietan herritarrek izango dira, beren hondakin zatiak bereizi, bildu eta bertan irekiko den Garbitxiki gunera eramango dituztenak. Bertan, ontziak eta konpostatze makina egongo dira. Udaletik adierazten dutenez, gunea prestatzeko lanek aurrera jarraitzen dute.

“Faltan botatzen dugu Foru Aldundiaren benetako laguntza”

Udal gobernu taldera ailegatu bezain laster, hondakinen arazoarekin topo egin eta gaiari hel-tzea erabaki zutela gogora ekarri du Xabier Mikel Errekondok. San Markos eta Udalaren elkarlana leku-ko. Mankomunitatearen norabidea aldatu zela aipatzen du alkateak, 2007an: “Erraustegiaren aurkakoa, eta hondakinen kudeaketa jasangarri eta zuzen bat bideratzearen alde-koa”. Udal ordezkarien artean ere, gehiengoak atez atekoa konponbide gisa ikusi dutela gogorarazten du. “Hamahiru zinegotzitik hiru bakarrrik daude aurka”, adierazi du Errekondok. Aldiz, Aldundiak erakutsitako jarrera zein den argi uzten du: “Faltan bota dugu Aldundiaren benetako laguntza. Diru laguntzak hitzez agindu eta gero eman ez. Inolako euro bakarra jaso gabeko proiektua da atez ateko bilketa”.

Arazoa, guztiona

Babesa eskuratuta, aurreproiektu bat lantzen hasi zen Udala, eta bertan hilabete hauetan bizi izan den prozesuko giltzarria zein zen identifikatu zuten; herritargoa. “Herritarrek ulertu behar dute berea ere badela arazoa. Guztioi eragiten digula”, adierazi du alkateak.

Abiapuntu horretan kokatzen du Udalak auzoz auzo eta sektoreka udazkenean abiarazi zuen parte hartze prozesua.

Orain artean bezala, aurrerantzean ere abian den sistema berria moldagarria izango dela oroitarazten du alkateak. Era berean, une honetan Usurbili begira dauden beste hainbat udalerrik hemen hasitako bideari jarraitzen badiote, guztien artean alkateak dioenez, “erraustegia bezalako irtenbideek zentzurik ez dutela erakutsiko du”.

Herri kontsulta antolatu dadin udalbatza plenoa egingo da martxoaren 26an, EAk eta PSE-EEk eskatuta

Atez ateko sistemarekin ados ez dagoen herri plataformak 700 sinaduratik gora bildu zituen, udalari herri kontsulta deitzeko eskatuz. Otsailaren 13ko ez-ohiko udalbatza plenoan, atez ateko sistema onartu zen eta herri kontsultaren proposamena kontuan hartuko zela adierazi zuen alkateak; jada bide administratiboa jarraitzen ari zela aipatuz. Pasa den astean, ordea, EA eta PSE-EEko zinegotziek ez ohiko udalbatza plenoa deitzeko eskaera sartu zuten udaletxean. Herri kontsulta bideratzea eskatzen dute eta, bien bitartean, atez ateko bilketa sistema geldiaraztea. Pleno hori martxoaren 26an egingo da.

Eusko Alkartasunaren webgunean aipatzen denez, www.eausurbil.net, "hilabete bada ehundaka usurbildarrek zabor bilketa dela-eta herri kontsulta eskatu ziotela udalari. Geroztik, dakigunez, alkateak eta bere gobernua ez du pausorik eman kontsulta gauzatu dadin, nahiz eta berak aitortu behin baino gehiagotan kontsulta egingo dela. Hitzak gauza bat dira eta ekintzak oso bestelakoak".

Udal aurrekontuetan, hain zuzen, herri kontsulta ez jaso izana kritikatzeko da EAren web orrialdean: "martxoaren 16an atez-ate zabor bilketa sistema



UDALAK INFORMAZIOA ZABALTZEKO HAINBAT BILERA ANTOLATU DITU. AZKEN BATZAR IREKIA DUELA BI ASTE EGIN ZEN KIROLDEGIAN.

abian jarriko dela ozen esan du alkateak komunikabide guztiak erabiliz, baina, bestetik, udal aurrekontuan kontsulta gauzatzeko dirurik ez du jarri nahi".

Atez atekoarekin, presaka

Udal gobernua atez atekoarekin presaka dabilela baina herri kontsultarekin geldo, eta horregatik, "Eusko Alkartasuneko zinegotziok, zinegotzi sozialistaren laguntzarekin, ez-ohiko pleno bat egitera behartuko dugu alkatea", dio

EAren idatziak. Pleno hori martxoaren 26rako deitu du udal gobernua.

Kontsulta egin bitartean, atez atekoa geldiarazi nahi dute

Beti ere www.eausurbil.net webgunearen arabera, pleno horretan "bi gai landuko dira. Lehena, herri kontsulta egitea onartzea eta herritarrei egingo zaien galdera onartzea eta, bigarrenez, atez ateko bilketa sistema bertan behera geratzea kontsulta egin bitartean".

2009ko udal aurrekontu proiektua, udalbatzan aztergai

Martxoaren 16an, ez ohiko Udalbatza plenoa egin zen Usurbilgo udaletxean. Arratsalde egindako batzarrean, 2009ko udal aurrekontua aztertu zen. Eskuardean duzun aldizkaria astelehen arratsaldean eraman genuen inprentara. Pleno honetako bozketen berri, beraz, datoren alean emango dugu.

Aurrekontuen kasuan, udalbatza ple-

noak hasierako onarpenera eman behar. Urrats hori emanda, aurrekontuak 15 egunez jendurreko erakusketan egongo lirake, alegazioak eta erreklamazioak egiteko.

Baina ez zen aurrekontuena asteleheneko plenoan aztertu zen gai bakarra izan. Hauek dira ez ohiko udalbatza plenora eraman ziren beste gaiak:

1.- Hiri Antolamenduko AASSetako

A-44 Eremua berrurbanizatzeko Obretako Proiektua onartzea.

2.- Hiri Antolamenduko AASSetako A-44 Eremuaren berrurbanizatzeko obren esleipena.

3.- 2009ko aurrekontu proiektua hasieraz onartzea.

4.- 2009ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda behin behingoz onartzea.

Osasuna atez ate

AZKENEAN ULERTU DUGU INGURUGIROAREN
OSASUNA ETA GUREA BAT ETA BERA DIRELA.

 **Usurbil**
osasuna atez ate



Usurbilgo Udata



GOBIERNO BASCO
EUSKADIKO GOBIERNUA

www.usurbil.net/atezate

Zabor ontzien agur festa

Kontainerrei agur esan eta atez ateko kuboei ongi etorria egin zitzaizen

Kito, orain arte herriko hondakinak biltzeko baliatu diren guneek berea egin dute. Kaleko eduki ontziak desagertu dira, beirarenak izan ezik. Gertaera ez da oharkabeen pasa. Larunbat eguerdian ospatu zen Udalak antolatutako jaialdi berezi baten bidez, agurtu zituzten herritarrek. Gonbidatu bereziekin gainera; Porrotx eta Marimotots, Tapia eta Leturia... Adio esateko modu berezia inondik ere.

Pasa den asteburuaz geroztik etxeko ohiko zabor poltsa kalean uzteko etxetik orain arte bilketa gune izan direnara doan bidea ezin da egin. Hondakinak atez ate biltzen hasteko 48 ordu eskas falta zirela Udalak presatatu zuen jaialdi batekin, herritarrek eduki ontziak agurtzeko aukera izan zuten. Eguerdiko hamabietan hastekoa zen antolatua zegoen ekitaldi sorta. Ordurako frontoiko harmailak guraso eta gaztetxo betea zegoen. Haurrek hainbeste maite dituzten Porrotx eta Marimototsek emanaldi berezia eskaini zuten. Martxoaren 14rako a proposa goa izan ezin zitekeen atez ateko hondakin bilketa sistema ardatz hartuta eskaini zuten saioa pilotalekuan.



EZKER ESKATEZ ATEKOA AURKEZTEKO EKITALDI NAGUSIAN, BESTEAK BESTE UDALEKO ETA MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIEK PARTE HARTU ZUTEN. ANIMO ETA ZORTE ONA OPATZEKO HITZAK ENTZUN ZIREN.

Parte hartzaile berezirik ere ez zen falta izan. Azken egunotan Kaxkoko kaleetan ikusi ahal izan ditugun eduki ontzi ibiltariak ere bertaratu baitziren frontoira. Porrotx eta Marimototsek, trikitilariekin batera gidatutako kalejirak Kaxkoko kaleak zeharkatu zituzten ondoren. Jai giroak guztia aurretik zeramala zirudien. Hain zuzen, kalejirak bat egin zuen beste irudi esanguratsu batekin ere. Orain arte herritarre-

kin txoko bat baino gehiago partekatu duten eduki ontziak kentzen ari baitziren une berean.

Inguruko herrietakoen babes

Inguruko herrietako zenbait alkate eta udal ordezkari bertaratu ziren agur festa bertatik bertara jarraitzera. Txistor dastaketarekin eta Tapia eta Leturiaren erromeri saioarekin amaitu zen jaialdia.

Urnieta, Hernani, Oiartzun... gure zain

Inguratzen gaituzten Gipuzkoako zenbait udalerrri, Usurbilen atez atekoarekin zer gertatuko begira daude. Urnieta, Oiartzun, Hernani edota Lasarte-Oria leudeke atekoak martxan jartzeko asmoa luketen itxarote zerrenda horretan.

Mankomunitatearen erronka, aurrerantzean ere gaikako bilketa sustatzean dagoela argitu zuen lehendakari Rikardo Ortegak. "Usurbil lehen izan da. San Markostik azkena izan ez dadin bultzatuko dugu", adie-

razi zuen aurreko astean eskaini zuten prentsaurrekoan. Bi erakundeek egingako ahalegina aitortu eta Udalak orain arte joratu duen bidean gaitu behar izan dituen oztopoak azpimarratu zituen. "Zorionak eman Udalari, egin duen lan oparo eta mardulagatik", adierazi zuen Mankomunitateko lehendakariak.

Usurbilgo esperientzia eredu garri jo zuen gainerako udalerrientzat: "Zortea opa dizuet. Zuen arrakastagu guztion arrakasta izango delako".



PASA DEN LARUNBATEKO FESTA KALE ANTZERKI BATEN BIDEZ IRAGARTZEN ARITU ZIREN AKTORE HAUEK.

Martxoaren 28an kantu afaria Artzabalen

Otsailaren 28an, kalez kale abesten aritu ziren. Orain, hilabete beranduago zaletuak Artzabalen bilduko dira. Euskal Kantu Taldekoek kantu afaria antolatu dute bertan, hilaren 28an, gaueko 21:00etik aurrera.

Sabela ondo bete eta mahai baten bueltan, afalostean abesteko tartea hartzea proposatzen du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Martxoaren 28rako, gaueko 21:00etan Artzabalen hasiko den kantu afaria antolatu dute. Afaltzeko honako menua dastatu ahal izango dute bertaratzen direnek: txipiroti entsalada, baratxuri fresko eta gula nahaskia habian, erreboilo eta txangurro milorria, entrekot puska roquefort saltsarekin, postre dastatzea eta kafea.

Eta afalostean, edo sabela bete artean ere, euskal kantuei errepasso ederra emateko aukera egongo da. Txartelak



USURBILGO EUSKAL KANTU TALDEAK ANTOLATUTAKO AFARIA GAUEKO 21:00ETAN HASIKO DA. TXARTELAK JADA SALGAI ARTZABALEN BERTAN ETA TXIRIBOGA TABERNAN.

jada salgai daude Artzabalen bertan eta Txiribogan, martxoaren 24ra arte. Prezioa, 25 euro. Urtarrilean osatzen kantu zaleen taldeak dinamika

bizia abiarazi du. Asteartero kantu ikastaroa antolatzearekin batera, kantu kalejira ospatu zuten otsailean eta orain, kantu afarian bilduko dira.

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

EGUNA: MARTXOAK 26, OSTEAGUNA

ORDUA:
Lehenengo deialdia, 19:00etan
Bigarren deialdia, 19:15ean

TOKIA:
NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan
Bordaberri 3, behea


GAI-ZERRENDIA:

1. 2008ko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2009ko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta osarpena
4. Galdera/erantzunak

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

·plataformak ·igogailu bereziak ·ahulki bereziak..



b
behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

Biltzaileak, atez ateko aurpegiak

Bost herritar arduratuko dira hondakin zatiak biltzeaz

Irudikoak jada zuetako etxe atarian ikusiko zenituzten eta baita ezagutu ere. Atez ateko bilketako protagonista nagusiak izango dira aurrerantzean, haiek baitira finkatua dagoen egutegia kontuan hartuta, egunez egun hondakin zati bakoitza jasotzeaz arduratuko diren bost udal langile berriak. Aurreko asteotan prestakizunetan murgilduta egon ondoren, martxoaren 16a ailegatu eta hasi dute jada euren estreinako lan astea.

Ibon Borda, Xabier Undiano, Iker Mujika, Iñigo Villafafila eta Jon Rueda herritarrak izango dira aurrerantzean atez atekoa egingo den etxebizitzetako hondakinak jasotzeaz arduratuko direnak. Udalak iazko abenduan egin zuen deialdi publikora aurkeztu ziren bostak, beste hainbat hautagairekin batera. Proba desberdinak burutu ostean, puntuazio gehien zituzten lehen bostak hautatu zituzten bilketa lanetarako. Behar beste prestakuntza jaso ostean, aste hasieratik lanean dira jada.

Bilketa, atariz atari

Udal langile berriak, txandaka, goizez zein arratsaldez atez atekoa egingo den eremuan, eta komertzioetan sortzen diren hondakin zatiak jasoko dituzte.



BOST BILTZAILE BERRIAK, ATEZ ATEKORAKO ERABILIKO DEN KAMIOIAREN ONDOAN. ATEZ ATEKO AURPEGIAN BILAKATUKO DIRA AURRERANTZEAN.

Biltzaile berriak eta bilketarako ere kamioi berria. Atez ateko parte hartze prozesuan zehar ezagun egin den logoa duena izango da, aurrerantzean atariz atari ibiliko dena.

Goizean, 6:30-8:30 artean Udalak jarritako zintzilikagailuetan utzi beharko dugu egun bakoitzari dagokion hondakin zatia; organikoa, ontziak, papera eta kartoia, erreusa.

Jarraian, bilketa lana hasiko da. Langileek honako ibilbidea osatuko dute

egunero, astelehenetik igandera: Txikiardi, Kaxkoa, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga eta Santuenea zeharkatuko dituzte.

Ingurune horietatik kanpo geratuko dira aipatu auzuneetako zenbait etxebizitzak, landa eremuak direnak. Eremu horretako bizilagunek Aginagan eta Atallun irekiko diren bilketa guneetan utzi beharko dituzte egunero hondakin zatiak. Irudiko bost udal langileak, bilketa lanetaz arduratuko dira.

Beira eta pilak ez dira atez ate bilduko

Sortzen ditugun hondakin zati guztiak ez dira atez ate jasoko. Beira biltzeko ontzi berdeek kaleetan jarraituko dute. Eta pilak ere herriko saltokietan dauden ontzietan utz daitezke.

Udalak, pilak saltzen zituzten saltokiak, aldi berean pilak jasotzeko guneak izatea proposatu izan du.

Horregatik, jada herrian aipatu produktuak saltzen dituzten dendetara itzuli daitezke, erabili ezin edo gastatu diren pilak.

Bestalde, gogoan izan, geure kaleetatik eduki ontzi guztiak ez direla desagertu. Beira biltzen dutenak hor jarraituko dute aurrerantzean ere. Gainerakoak ordea bai, desagertu dira jada.



DRAIN ARTE BEZALA, BEIRA ZABOR ONTZI BERDEETARA BOTA BEHAR DA.

Berdintasunaren bidean, hobetzeko ditugunak

Gizonezko zein emakumezkoen aukera berdintasunari lotutako diagnostia osatu berri du Elhuyarrek Udalarentzat. Aurreko alean hizpide izan genuen. Honakoan, diagnostikoaren datu konkretuetan erreparatu dugu eta, batzuk behintzat, oso deigarriak dira.

Maila politikoan, ordezkari nagusiak gizonezkoak

-Ordezkari politikoen ia erdia emakumezkoak dira. Ordezkari nagusiak, aldiz, (alkatea, alkate-ordea) gizonezkoak dira.

-Batzorde informatzaileetan, emakumeak, tradizionalki haien esku egon diren alorretan ageri dira: Euskara eta Kultura, Ongizatea. Gai banaketa tradizionala, beraz.

Berdintasun sailik ez da udaletxean

-Lan esparruak bereizita; udal brigadan hogeitaz langile, emakume bat. Beste sail batzuetan, ordea, denak emakumezkoak dira.

-Zaintza lanak eta lana uztartzeko udal langileek ordutegi malgua dute. Brigadan ez ordea.

-Berdintasun sailik ez dago. Maila teknikoan ez dago egiturarik ardura hauetarako.

-Udalak antolatutako ekintzetan, genero ikuspegia ez da aintzakotzat hartzen.

Hiru gastronomia elkartetan, emakumeak ezin parte hartu

-Kultur ekintzak eta ekitaldietako parte hartzean, ez da kontuan izaten genero ikuspegia.

-Hiru gastronomia elkarteetan emakumezkoek ezin dute parte hartu.

Kirolean, emakume gutxi begirale lanetan

-Zazpi kirol elkarteetako zuzendari-tzan, emakumeak daude.

-Entrenatzaile eta begiraleen artean, emakumezkoen presentzia oso txikia da.

-Erreferentziazko kirolariak, gizonezkoak dira.

-Eskola Kirolean: nesken bi talde eta

mutilen lau talde.

-Zenbait kirol jarduera, hala nola gimnasia erritmikoa, taldea neskez erabat osatua.

Langabezia tasa handiagoa emakumezkoen artean

-Langabezia tasa handiagoa da emakumezkoen artean.

-Udaletik ahalegin berezia egin da emakumezkoen errealitateari aurre egiteko. Garapen ekonomikoko sailetik: hastapen tailerrak eta enplegu prestakuntza ikastaroak antolatu dira.

-Gizonezkoekin lotutako lanbideetako merkatuan murgiltzeko zailtasun handiak dituzte emakumezkoek. Arrazoiak: enpresen erresistentzia kontratazioetan eta emakumezkoen zailtasunak lana eta familia uztartzeko.

Hezkuntzan, asko egiteko

-80 langileetatik 70 emakumeak.

-Haur Eskolan eta Haur Hezkuntzan langile guztiak, emakumezkoak. Gizonezkoak topatzeko zailtasunak.

-Berdintasunari lotutako irizpide bateraturik ez, gai lanketan.

-Ikasleen artean rol markak mantentzen dira. Joera heterosexuala ez duten ikasleenganako jarrera baztertzailerak daude eta ikus entzunezkoen lengoaiaren lanketa eza.

Kale izenetan, emakumezkoek ez

-Pertsona izena duten kale gutxi: dituzten kasuetan, guztiak gizonezkoenak.

-Atez ateko bilketa sistema eredu-garria da: parte hartze prozesuan, emakumezko gehiago egon da. Bileretako udal ordezkari-tzan; bostetik emakumezko bakarra. Jarraipen Batzordean aldiz, hamahiru emakumezko eta hamaika gizonezko.

Genero-indarkeria

-Sexu indarkeria: Eusko Jaurlaritzak badu protokoloa. Udalerrri mailakorik ez dago ordea.

2006 eta 2007an, bosna salaketa sexu indarkeriagatik. 2007an bi sexu eraso.



BEHIN DIAGNOSTIKOA OSATUTA, BERDINTASUN PLANA OSATU NAHI DU UDALAK.

Hurrengo urratsa, Berdintasun Plana osatzea

Hauk diagnostikoak utzitako datuak. Hurrengo pausoa, Berdintasun Plana burutzea izango da. Hauk izango dira ardatzak: politika publikoetan genero ikuspegia indartzea, gizarteko arlo guztietan presentzia eta parte hartzea indartzea; bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzea; indarkeria sexista desageraraztea.

-Jarduera eremuak: arloz arloko emaitzak kontuan izanda, horren arabera helburuak finkatu eta horiek betetzeko ekintzak planteatuko dira.

Berdintasun gaiak jorratuko dituen lanpostua sortu nahi du Udalak

Andatza udal aldizkariak azken alean dioenez, Udalak berdintasunaren alorraz arduratuko den udal teknikari lanpostua sortzeko asmoa du aurten.

Uda honetan ere, Ziortzako kanpaldietara

Udako kanpaldia prestatzen hasi da Ziortza Gazte Elkartea. Uztailean egingo da kanpaldia, baina aldeztu aurretik eman behar da izena. Martxoaren 31n amaituko da izena emateko epea. Dagoeneko 76 izan dira Ziortzako kanpaldietara animatu diren gazteak.

Aurreko urteetan bezalaxe, honakoa ere jolasak, irteerak, bainuak, rutak, herritarrekin afaria, dantzaldiak eta antzerakoak egiteko asmoa dute Ziortzako hezitzaileek. Era honetan, esperientzia eder bat bizitzeko aukera izango dute gaztetxoek.

ZIORTZA GAZTE ELKARTEA

“Lehen txandan, DBHko ikasleak joango dira.

Bigarren txandan,
LH 3, 4, 5 eta mailakoak”

Bi txanda antolatu ditu Ziortza Gazte Elkartek. Lehen txanda, DBHko ikasleekin osatuko dute. Bigarrena, lehen hezkuntzako ikasleekin.



BIGARREN TXANDA OSO BETEA DAGO BAINA LEHENENGORAKO ORAINDIK BADA LEKURIK.

Izena emateko bi modu daude.
Telefonoz, 638 524 710 zenbakira deituz. E-postaz, ziortzage@gmail.com helbidera idatziz.

Lehen txanda, uztailak 6/19
DBH 1, 2, 3 eta 4 mailako ikasleekin osatuko da lehen txanda. Uztailaren 6tik 19ra luzatuko da.

Bigarren txanda, uztailak 19/26
LH 3, 4, 5 eta 6 mailako ikasleekin osatuko da bigarren txanda, uztailaren

19tik 26ra egingo da bigarren txanda.

Izena emateko garaia
Ziortza Gazte Elkartek aditzera eman duenez, izena emateko epea martxoaren 31n amaituko da.

Gurasoei deialdia
Azkenik, Ziortzako kideek aditzera eman dutenez, aurrerago deialdia egingo zaie gurasoei, kanpaldiko muntaia lanetan euren laguntza eskatzeko.

Gazteriari buruzko ikerketa martxan

Herriko gazteek dituzten beharrik ezagutzeko ikerketa egingo da Usurbilgo Udarentzat Kalexa enpresa.

Azterketak 13-19 urte bitarteko gazteen beharrik ezagutzea du helburu. Azterketaren emaitzekin adin tarte horretarako diagnosi egingo da eta diagnosi horretatik abiatuta datozen urteetarako ekintza-lerroak

zehaztu nahi dira.

Apirila amaierarako ikerketa amaituta egotea espero da.

Litekeena da datozen egunetan, Kalexkako teknikariak herritarrengana, eta bereziki gazteengana, galderaren bat egitera hurbiltzea. Udaletik biziki eskertuko lukete, ikerketaren helburua zein den ikusita, teknikari hauei harrera ona egitea.

Datorren ostegunean amaituko da Soinurbil

Martxoak 26, osteguna
19:00 Usurbilgo Zumarte eta Orioko Danbolin Musika eskolako ikasleak Orioko kultur etxean.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Udala.

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartea.

Martxoaren azken asteburuan

Urkulu mendira doa Andatza Mendi Taldea

Ikasturte honetan, Euskal Herriko zazpi herrialdeak bisitatu nahi ditu Andatza Mendi Taldeak. Eta herrialde bakoitzean, mendi bat igo. Mendi bat igo eta tokian tokiko bazterrak ezagutu. Martxoaren 29an, Behe Nafarroara joango dira. Urkulu mendira (1.419 m) igo nahi dute. Orbaizeta inguruan dago eta mendi-lerro ederra ikusten da Urkulu menditik. Egunean bertan, goizeko 7:00etan aterako dira Andatzako egoitza paretik.

Noizbait izan zara Behe Nafarroako mendi batean? Andatzakoek Urkulu mendia (1.419 m) ezagutzeko aukera eskaini nahi diete herriko mendizale denei. Goizeko 7:00etan abiatuko dira elkarteko egoitza aurretik, baina kontuz ordu aldaketarekin. Asteburu horretan aurreratu beharko baita ordularia.

5-6 ORDUKO IBILBIDEA

“Orbaizetatik abiatuko dira oinez Urkulu mendira. Ibilbidearen iraupena 5-6 ordukoa izango da”

Behin Behe Nafarroara iritsita, Orbaizetako fabrikatik (800 m) abiatuko dira Urkulu mendira. Baina ibilbidearen iraupena, hala ere, 5-6 ordukoa izango da.



IRUDIAN, URKULU MENDIKO TONTORREKO DORREAREN ARRASTOAK.

Anbotoko irteera, aurrerago

Otsailean Anbotora joateko asmoa zuen Andatza Mendi Elkartek, baina mendi irteera bertan behera geratu zen, eguraldi kaxkarrarengatik eta jende faltagatik, baina aurrerago egingo da. Hala ere, elkarteko kide batzuk Saioa mendira joan ziren mendiko eskiekin.

Apirilean, Tolosa-Usurbil oinez

Bestalde, urtero egin ohi den ibilaldia apirilaren 26an egingo da, Tolosatik Usurbila oinez. Dena den, xehetasun gehiago aurrerago emango dituzte.

Emakumea Pilotari txapelketa, azken txanpan

Dolo Errasti Aginagako jokalaria Emakumea Pilotari txapelketako final-erdietara iritsi da. Aurreko asteburuan jokatu ziren final-erdiak. Azpimarragarria da lau bikotetatik hiru nafarrak izan zirela. Laugarrena, berriz, Redondo-Dolo Errastik osatutakoa, gipuzkoarra da, iazko bikote txapeldunordea.

Finala larunbat honetan jokatuko da, hilaren 21ean, Anoetako Alkartasuna pilotalekuan.

Pilota emaitzak

UDABERRI TXAPELKETA

MARTXOAK 13 OSTIRALA, USURBIL
JUBENILAK 1. maila
USURBIL 22 - BERGARA 19
(Gorka Mendizabal - Josu Ostolaza)

JUBENILAK 2. maila
MUNDARRO I 18 - USURBIL 22
(Iban Arruti - Markel Galarraga)

MARTXOAK 13 OSTIRALA, ANTZUOLA
NAGUSIAK 2. maila
BERGARA 22 - USURBIL 8
(Jon Olaizola - Iker Zinkunegi)

MARTXOAK 14 LARUNBATA, ANTZUOLA
AZKEN LAURDENAK, NAGUSIAK 1. maila
USURBIL II 19 - USURBIL III 22
(A. Aranburu-A. Katalina)(A. Portu-A. Txapartegi)

TELEDONOSTI TXAPELKETA
MARTXOAK 13, OSTIRALA, JUBENILAK
Xabier Santxo 15 - Iraitz Arrieta 22 (Markina)

Agenda !

Martxoak 26 osteguna

- NOAUA!ko bazkideen ohiko batzarra. 19:00etan, NOAUA!n bertan.

- Mendeku Itxua taldearen disko berriaren aurkezpena, 20:00 Sutegin.

Sarrera: aldez aurretik 2 euro, Oiardon salgai. Egunean bertan, 3 euro.

Martxoak 28 larunbata

- Antzerkia: "Txanobarragorri". 20:00etan Sutegin. Sarrera: aldez aurretik 4 euro, Oiardo Kiroldegian. Egunean bertan, 6 euro.

- Kantu afaria Artzabalen. 21:00etan. 25 euro. Tiketak aldez aurretik salgai Artzabalen eta Txiribogan.

Martxoak 29 igandea

- Zinea: Txoriburuak (Bonkers), 17:00etan, Sutegin. Sarrera, 2 euro egunean bertan.

KzGunea, ikastaroak Martxoak 23 astelehena

INTERNET KURTSOA KZGUNEA
+ E-ADMINISTRAZIOA
Ordutegia: 18:00-20:00

Martxoak 25 astezkena SINADURA ELEKTRONIKOA

Ordutegia: 16:00-18:00

Martxoan KzGunea arratsaldez, 16:00-20:00. Tel: 943 361412.

Erroizpeko batzarra, martxoaren 29an

Hileko azken igandean, martxoaren 29an Txokoaldeko Erroizpe elkartearen urteroko batzar orokorra burutuko da, goizeko 11:00etik aurrera. Ondoren hamaiketako banatuko da. Elkartetik bazkide guztiei bertaratzeko deia egiten zaie.

Martxoaren 26an aurkeztuko du disko berriena Mendeku Itxuak

Denbora luzez aritu dira disko berria prestatzen. Baina itzalean egindako lana jendurrean aurkezteko garaia iritsi da. Martxoaren 26an, "Indarrak batuz" izeneko diskoa aurkeztuko dute Sutegin. Sarrerak aldez aurretik eros daitezke kiroldegian, 2 eurotan. Egunean bertan ere salduko dira, Sutegin bertan, 3 eurotan.



"INDARRAK BATUZ" DU IZENA MENDEKU ITXUAKEN DISKO BERRIAK.

Duela aste batzuk, Mendeku Itxua taldekoei egindako elkarrizketa bildu genuen orriotan. Bideoklipa ari ziren Sutegin grabatzen. Martxoaren 26an ere, Sutegin izango dira. Baina honakotan, diskoa zuzenean aurkezteko asmoz itzuliko dira kultur etxera.

Bideo-klipa ere eskainiko da
Kontzertua 20:00etan izango da. Eguerdian partean, hedabideen aurrean prentsaurrekoa eskainiko dute.

12 kantuk osatzen dute "Indarrak batuz" diskoa. Tartean da "Herentziaren mendekua". Kantu honekin bideo-klipa egin dute, Txerriki Antzerki Taldekoen laguntzaz. Beraz, disko berri honetako kantuak entzuteko aukera paregabea izango da martxoaren 26koa.

Lau kidek osatzen dute Mendeku Itxua: Ixak Arrutik (gitarra eta ahotsa), Ander Aizpuruak (gitarra), Iñigo Rotetak (baxua) eta Martin Larrañagak (bateria).

Adineko ezinduen zaintzaileentzat ikastaroa antolatu dute Gizarte Zerbitzuek

Sendian izeneko programa Gipuzkoako Foru Aldundiak koordinatutako ikastaroa da. Adineko ezinduak zaintzen dituzten familiei laguntzeko bereziki prestatutako programa. Usurbilen, adineko ezinduak zaintzen dituzten familiei laguntzeko ikastaroak martxoaren 31an eta apirilaren 1, 2 eta 3an egingo dira, 15:00etatik 17:00etara Etumeta Euskaltegian. Izen ematea, Udal Gizarte Zerbitzuetan. Telefono zenbakia: 943 377 110.



IKASTAROA MARTXOAREN 31N HASIKO DA, ETUMETA EUSKALTEGIAN.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
eraikuntza
4743 4767 264
4743 4767 475
4743 4767 476

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

ETXEBIZITZA

- Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 miloi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00etatik 21:00etara, 656 75 70 73.
- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berrieta eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Xsara Picasso salgai. 2000 urtekoa eta egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti gara-

jean, ondo zaindua. 622369646.

- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Asteleneetik ostiralera eta 13:30tatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.
- Batxiler 2.mailako ikasle bati astean ordubetez historiako klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eskatzen da. 943 365 255.

Lan-eskaintzak

- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakume adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informea ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest

nago. 654 217 752.

- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
- Inauterietako igande goizean Nokia telefono bat ahaztu genuen zesto baten barruan. Aurkitu duenak Txirristan edo Udaletxean bueltatu dezala. Egun batzuren bueltan telefona blokeatuko da eta ez du balioko inorentzat.
- AC/DC taldeak, martxoak 31 asteartea Bartzelonan eskeiniko duen kontzertura Donostiatik joateko autobusa antolatua da. Joan-etorria 50 euro. Eserleku kopurua mugatua. Izena emateko: bus_acdc@hotmail.com
- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldian abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriein eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net



Zorionak Unax!
Udaberriarekin batera etorri zinen mundura txiki, orain dela urtebete. Zorionak eta muxu goxo bat Danel eta gurasoen partez maitia.



Zorionak Maria!
Martxoak 19an egiten dituzu 6 urte. Aita, ama eta Noraren partez muxu handi bat eta besarkada bat bidaltzen diogu etxeko pristesari.



Zorionak Igor! Lau urte bete dituzu martxoaren 17an. Etxeko guztion partez zorionak!

txirristra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

osasun gida

Farmazia



Iturralde
Botika

Tomas Iturralde botika
R.P.S. N° 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopaticoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Fisioterapia



FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Optika



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

Hortz klinika

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



Larre-Gain Baseria Ereñotzu - Hernani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baseria
info@agroturismoarratzain.com

Tel: 943 36 66 63
20170 USURBIL



Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com

